

Alfabetatzearen, ikastolen, euskara batuaren, literaturaren, prentsa idatziaren, irratiazen, telebistaren, korriken eta lan askoren ondoren, azken berrogei urteotako euskararen biziberritzearen ondoren, euskararen aldeko mugimendua egonkortu dela esaten da, normaltasunaren alde aurrerapauso handiak egin eta normalitate moduko batean lasaiturik edo trabaturik gelditu dela euskaraz bizitzeko aukeraren aldeko mugimendua.

Euskararen alde egitea normaltasunaren kontra egitea da oraindik. Aukerak eta maukerak egin behar izaten ditugu euskaraz bizi nahi dugunok. Belaunaldiak daramatzagu euskaldunak behetik gora elkartzen eta ekiten, erresilientzia honetan, goitik behera ezartzen zaizkigun lasaigarri kulturalak eta traba politiko gairitzeko. Badugu motibo bat: badugu altxor partikular bat balio unibertsala duena, ispilu batean bezala islatzen delako bizitza hizkuntzan.

Hizkuntzan ikusten du bere burua edozein pertsonen zein komunitatek, oharkabean bada ere, eta hizkuntza kaltetua ispilu apurtua bezalako izaten da. Hizkuntza bat desagertzen denean, mundu guztiak galtzen du bizitza ikusteko eta azaltzeko modu berezi bat. Euskara, beste hizkuntzak bezala, altxor unibertsal bat da, denona delako, agortzen ez delako eta dohainekoa delako.

Denona da, dena pribatizatzen ari den sasoiaren. Ez da agortzen erabiliz gero, gauza gehienak erabili eta botatzen diren egunetan. Eta dohainik erabiltzen dugu, gehien gehiena ordaindu behar denean. Euskara noranahikoa da, baina gutako bakoitzaren baitan dago. Lapur altxorra balitz bezala edukiko duzu zulo ilunen batean ezkutaturik? Konturatzen zara goizetan ohetik jaikitzean ezti tanta gozo bat bezala senti dezakezula ezpainean?

JOSEBA SARRIONAINDIA